

2,8 MILIOI EUROKO INBERTSIOA ASTIGARRAGA ETA OIARTZUN ARTEKO GI-2132 ERREPIDEAREN 6 KILOMETROKO ZORUA BERRITZEKO

Lan horien bitartez Donostiako Bigarren Ingurabidea egiteko obrek GI-2132 errepidean eragindako kalteak konpondu ahal izango dira, errepide horrek aparteko trafikoa izan baitu, batez ere obrako kamioi eta ibilgailuena.

Proiektua: Errepideko zoruaren egitura birgaitzea

Errepidea: GI-2132 (Errekalde-Lartzabal, Astigarragatik)

Zatia: 8,300 kilometro puntutik 14,315 kilometro puntura

Luzera: 6 kilometro

Udalerriak: Astigarraga, Errenteria, Oiartzun

Inbertsioa: 2,8 milioi euro

Obra egiteko epea: 5 hilabete

Egoera: Enkantera aterata

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentziaren bitartez, 2,8 milioi euro inbertituko ditu “Errekalde-Lartzabal, Astigarragatik” GI-2132 errepideko 6 kilometroko zorua berritzeko, orain gutxi trafikora ireki den Donostiako Bigarren Ingurabidea egiteko obren ondorioz kalteak izan baititu.

Izan ere, Bigarren Ingurabidea egiteko azken hiru urteetan mobilizatutako obrako kamioiek eta ibilgailuek asko erabili dute GI-2132 errepidea Astigarraga eta Oiartzun arteko zatian, eta “aparteko” karga horrek eta behin-behineko desbideratzeek nahiz zerbitzuen azpiegiturek kalteak sortu dituzte konpondu nahi den GI-2132 errepide horretako zoruan. Orain, Bigarren Ingurabideko lanak bukatu direnez operazio horri ekiteko moduan gaude.

Errepideko zoruaren egitura birgaitzeko lanak 6 kilometroko zatian egingo dira, 8,300 kilometro puntutik 14,315 kilometro puntura, Astigarraga, Errenteria eta Oiartzungo udalerrietan.